

2017



2017ko MEMORIA

Segurtasun Saila

LARRIALDIEI AURRE EGITEKO ETA METEOROLOGIAKO ZUZENDARITZA (LAEMZ)

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD



EDUKIA

MISIOA, BISIOA ETA LEGEGINTZALDIRAKO EKIMENAK

01. SOS DEIAK LARRIALDIAK KOORDINATZEKO ZENTROAK

02. ABISUAK, ALERTAK ETA ALARMAK

03. JARDUERA ETA GERTAKARI AIPAGARRIENAK

04. ARAUGINTZA-JARDUERAK

05. HITZARMEN ETA PROTOKOLOAK

06. PLANAK

07. SIMULAZIOAK ETA JARDUERAK

08. ZABALKUNDEA

09. PRESTAKUNTZARAKO LANKIDETZA

10. EKIPAMENDU METEOROLOGIKO BERRIAK

11. EKITALDI INSTITUZIONALAK

12. BOLUNTARIOAK

13. PROIEKTU EUROPARRAK



AGURRA

Irakurle hori:

Esku artean daukazun memoria honetan, Larrialdiei Aurre egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak (LAEMZ) 2017. urtean zehar burutu dituen jardueren alderdi nagusi eta aipagarrienak jaso nahi izan ditugu.

Behin eta berriz esan ohi dugu herritarrek jasaten duten edozein larrialdi-egoerak erantzun azkar eta eraginkor bat jaso behar duela. Esaldia laburra da, baina konpromiso handia islatzen du.

Sail honek konpromiso hori betetzeko egiten duen ahaleginaren adierazle argiena memoria honetan bildutako jardueren eta ekimenen multzoa dugu. Memoria honen bitartez, Segurtasun Sailburuordetzatik, Larrialdiei Aurre egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza buru dela, egiten dugun prebentzio-eta laguntza-lanaren ezagutza erreal eta zehatza izan dezazula lortu nahi da.

112 telefonoa, larrialdi-deietarako telefono komun europarra, sistemara sartzeko atea da eta erakundeen arteko laguntza- eta lankidetzaren sare osoa aktibatzen duen mekanismoa. Gu guztion zerbitzura dago, behar dugun guztietan aktibatze moduan. Baina hori ez da memoria honetan nabarmentzeko moduko alderdi bakarra.

Arlo publikoak eta erakundeek larrialdi-egoerei aurre egiteko sistema on bat izateko ahalegin handia egiteaz gain, prebentzio politiketan eta, jarrera osagarri eta sozial gisa, talde mailan zein banaka, autobabesaren kontzeptua sustatzeko ere lan handia egin dute, larrialdietako sistema osoak eta, oro har, denon ondasuna den segurtasun publikoak, orain arte bezala, Euskadin kudeaketa eraginkor eta efizientearen eredu izaten jarrai dezatela.

Orain irakurtzen zabiltzan memoria honi esker, Sail honek, Segurtasun Sailburuordetzako Larrialdiei Aurre egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren bidez, 2017an egindakoa hobeto ezagutuko duzulakoan nago.



Estefanía Beltrán de Heredia Arroniz
Segurtasun Sailburua

MISIOA, BISIOA ETA LEGEGIN- TZALDI- RAKO EKI- MENAK

MISIOA

Larrialdiak kudeatzeko sistema bateragarri eta integratu bat etengabe erabilgarri egongo dela bermatzea. Sistema horrek larrialdi egoerak prebenituko ditu eta haiei aurre egingo die hauek erabiliz:

- Arriskuen analisia.
- Prebentzio neurriak ezartzea eta ezarpenean lagundu.
- Larrialdiei eman beharreko erantzunaren planifikazioa.
- Larrialdi-deiei arreta.
- Esku-hartzeen koordinazioa.
- Muturreko edozein meteorologia-fenomeno dela eta, informazio meteorologikoa, prebenitzeko zein jarraipena egiteko helburuarekin.
- Zerbitzu meteorologikoak ematea, gure gizartearen garapeneren eta ongizatearen onerako.

BISIOA

Larrialdiei Aurre egiteko Euskal Sistema eta Euskalmet-Euskal Meteorologia Agentzia erreferentziazko erakundetzat hartuak izatea, ezaugarri hauek izaten dituztelako:

- Efikazia.
- Eraginkortasuna.
- Baliabideen dotazioa.
- Garapen teknologikoa.
- Herritarren eta kideen asebetetze maila.

Legegintzaldirako EKIMENAK

Larrialdiei Aurre egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak larrialdietan alerta-sistema eta herritarren autobabesa indartzeko konpromisoa dauka eta horren adierazleak lau ekimen hauek dira:

- Itsas Salbamenduko eskumen guztiak eta Meteorologia arloko transferentzia eskatzea, eta Itsas Salbamendua Larrialdiei Aurre egiteko Euskal Sistemari txertatzea.
- Herritarrei abisatzeko prozedura bat prestatzea “112”ren eta teknologia berrien bitartez, eta horri esker abisu- eta alerta-sistema indartzea.
- Gerta litezkeen arrisku-egoeren inguruko informazioa etengabe emateko sistema bat ezartzea, egiazko informazio azkarra eta osoari esker autobabesa bermatu ahal izateko.
- Larrialdien kudeaketa koordinatuta bultzatzea eta horretarako lankidetzeta eta koordinazio protokoloak inplementatzea. Gertakari konplexuetan espezializatuta dauden taldeetarako prozedurak homogeneizatzea.



01

SOS DEIAK LARRIAL- DIAK KOOR- DINATZEKO ZENTROAK

JASOTAKO DEIAK ETA GERTAKARIAK

Europar batasunaren ekimenez SOS Deiak Koordinazio Zentroak 1983an sortu ziren, herritarrei larrialdi egoeretan laguntza emateko sistema azkar eta eraginkor bat emateko helburuarekin. Haien lanaren isla da urtero lortzen diren datu estatistikoaren bolumen handia. Horiek horrela, 2017an SOS Deiak Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak, 112 telefonoaren bidez, 864.261 dei jaso eta 205.708 gertakari kudeatu zituen.


Kudeatutako gertakari gehienak lotuta egon ziren larrialdi medikoekin (%23,22), bide publikoan arriskuak antzematearekin (% 21,08), pertsonen istripuekin (%14,72), herritarren segurtasunarekin (%14,61) eta trafiko istripuekin (%10,97). Hartutako deietatik 471.693 Bizkaian izan ziren, 265.024 Gipuzkoan eta 127.544 Araban.

E-CALL

Urrian SOS Deiak Koordinazio Zentroetan e-Call dispositibo elektronikoa implementatu zen. Larrialdi deietarako sistema adimentsu bat da eta, GPS eta GSM teknologia erabiliz ibilgailuaren barruan instalatutako sentsore bartzuen bidez, eskuz edo automatikoki aktibatu ahal da eta horri esker, ezustekoa edo istripua izan duen ibilgailuaren kokapen zehatza zein den jakin daiteke.

864.000 Artatutako deiak

205.000 Kudeatutako gertakariak



ABISUAK, ALERTAK ETA ALARMAK

LAEMZerako, abisuen, alerten eta alarmen sistema oinarrizko tresna bat da, muturreko meteorologiaren mehatxuak eta horrek eragin ditzakeen kalte material eta pertsonalak gutxitu ahal izateko.

Sistema horrek Zuzendaritza honi jarduera mekanismo batzuk ezartzeko aukera ematen dio eta horien bidez, erakunde desberdinen artean informazioa trukatu ahal da, horrelako fenomenoek jarraipena egin ahal da eta amaieran, erakunde ofizialek eta Euskadiko herritarrek zein prebentzio-neurri hartu behar dituzten zehaztu ahal da.

LAEMZek ezarritako kaltegarritasun-mailen arabera, muturreko egoerek molestiak edo kalte arinak eragin ditzakete (abisu horia), kalte ertainak edota zehatzak (alerta laranja) eta kalte larriak edota orokorrak (alarma gorria).

2017an zehar, EAE 111 egunez egon zen abisu horian, 15 egunez alerta laranja eta behin ere ez alerta gorrian. Datu horiek batuta guztira 126 egunez egon da, neurri handiago edo txikiago batean, muturreko meteorologiaren eraginpean.

Muturreko meteorologia edo urtegi-hustuketak direla eta, bidalitako SMS ETA MEZU ELEKTRONIKOAK

Muturreko fenomenoak berehala gertatuko direlako informazioa berehala helarazten zaie prebentzio arloan inplikaturik dauden erakunde eta instituzioei, SMS eta mezu elektronikoen bidez. 2017. urtean LAEMZek 42.905 SMS eta 250.562 mezu elektronikoko bidali zituen.

GERTAKARI aipagarriak

2017an izandako muturreko meteorologiako gertakari aipagarrienetako bat urtarrilaren 10ean eta 17an gertatu zen, egun horietan euria etengabe egin zuelako, eta

horrek bereziki Bayas ibaiaren gainean izan zuen eragina, bertan uholde historiko bat gertatu zen eta.

Otsailaren 3, 4 eta 5eko haize handiak ere nabarmendu behar dira. Horiek Arabako lurraldean (bereziki ekialdeko lautadan) eta Debagoienan presentzia handia izan zuten, eta data horietan ere euskal kostaldean olatu handiak izan ziren.

Temperatura altuak eta jarraituak ekainean agertu ziren, 19 eta 21ean, hain zuzen. Ohiz kanpoko gertakari horretan, temperatura data horietan normalizat jotzen dena baino 10 °C altuagoa izan zen.

Abuztuaren 30ean prezipitazio handiak izan ziren, Gipuzkoan, bereziki. 10 minutuan 19 l/m² jaso ziren Laurgaineko estazio foralean eta puntu horretan bertan ordu betean 54 l/m²-ko metatua erregistratu zen.

Abenduaren 10ean Euskadira "Ana" ekaitza gogorra heldu zen eta horrek haize- eta nabigazio-gertakari batzuk eragin zituen. Euskalmetek Gasteizko estazioan gertakari bitxi hau erregistratu zuen: bertan 143 km/h-ko haize boladak ere gertatu ziren.

126

Bidalitako
abisuak

111

Abisu horiak

15

Alerta laranjak

0

Alarma gorriak

BIDALITAKO ABISUEN KOPURUA:

		Abisu horiak	Alerta laranjak	Alarma gorriak	GUZTIRA
PREZIPITAZIOAK	Jarraituak	9	1	0	10
	Handiak	19	0	0	19
ELURTEAK		24	2	0	26
HAIZEA	Eremu arriskutsuak	22	5	0	27
	Arriskurik gabeko eremuak	13	6	0	19
ITSASOA/KOSTALDEA	Uhin-garaiera nabigazioan	40	4	0	44
	Galernak	3	0	0	3
	Kostaldearen gaineko eragina	22	1	0	23
TENPERATURAK	Izozteak	35	0	0	35
	Altuak eta jarraituak	5	4	0	9
	Altuak eta muturrekoak	4	0	0	4
BASO-SUTEAK		5	0	0	5
GUZTIRA		201	23	0	224

JARDUERA ETA GER- TAKARI AI- PAGARRIE- NAK

2017. urtean zehar, LAEMZek, esku-hartze arloaren bidez, kausa desberdinek eragindako hainbat gertakari garrantzitsutan parte hartu zuen. Esaterako, martxoaren 12an, Sestaoko (Bizkaia) etxebizitza-eraikin batean izandako sute baten ondorioz, 60 pertsona irtenarazi ziren.

Biktima anitzeko gertakaritzat har daiteke Bilboko Zorrotza auzoko eraikin batean maiatzaren 27an izandako hiriko sute handi bat. Gertakari horren ondorioz, familia bereko bost pertsona hil ziren.

Egun batzuk geroago, zehazki ekainaren 1ean, LAEMZek San Pedro Galdameseko (Bizkaia) hirigunetik hurbileko barrunbe batean hildako espeleologo bat erreskatatzeko lanak antolatu zituen.

Uztailaren 4an, osasun-zerbitzuek Tolosako (Gipuzkoa) igerileku estaliaren ehun erabiltzaile baino gehiago artatu behar izan zituzten, kloroa arnastu zutelako.

Uztailaren 7an, N1ean, Irura (Gipuzkoa) inguruan gertatutako istripua ere azpimarratu behar da, kamioi batek eta Laskibar geralekuan aparkatuta zegoen eta bidaiariak zeramatzan autobus batek talka egin zutenean. Gertakari horren ondorioz, 7 pertsona zauritu ziren, zenbait larritasun-mailako zauriekin.

Amaitzeko, abenduaren 30ean, Gorbeia Parke Naturallean (Araba), Harrobien eremuan (Murua), desagertutako mendizale bat bilatzeari ekin zitzaion. Gaztearen gorpua aurkitu zutenean, bilaketa amaitutzat jo zuten.



ARAUGIN- TZA-JAR- DUERAK

LAEMZek babes zibilaren eta larrialdien kudeaketaren arloan burutzen dituen araugintza-jardueren artean, 2017. urtean dekretu hauek aipatu behar dira:

1/2017 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, apirilaren 27koa, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duena.

Eusko Legebiltzarrak onartu zuen martxoaren 28ko, 1/2017 Legegintzako Dekretua, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duena.

245/2017 DEKRETUA, azaroaren 7koa, Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzuetarako Erakundeen arteko Batzordea sortzen duena.

Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzuak ezinbestekoak dira Larrialdiei Aurre egiteko eta Babes Zibilerako Euskal Sistemari. Euskadin dauden zerbitzuen titulartasuna eta kudeaketa kasuan kasuko lurralde historikoei eta hiriburuei dagozkie.

253/2017 DEKRETUA, azaroaren 21ekoa, Eusko Jaurlaritzaren larrialdien eta babes zibilaren arloko sariei buruzkoa.

Horren helburua da Larrialdietan esku hartzeko zerbitzuetako langileen jarduketari aipagarriak jendaurrean aintzat hartzea, bai eta arrisku kolektibo larriko, hondamendiko edo lazzeria publikoko egoeretan pertsonak, haien ondasunak eta ondare kolektiboa babesteko funtsezko lanean herritarren inplikazioa eta aipatutako zerbitzuei emandako laguntza aintzatestea ere.

HITZARMEN ETA PRO- TOKOLOAK

LAEMZeren eginkizun nagusietako bat da egon daitezkeen larrialdi-egoerak modu koordinatuan kudeatzea. 2017an lankidetzaz-hitzarmen eta -protokolo hauek sinatu ziren:

- Urtarrilaren 12an, Segurtasun Sailak Itsasoko Gurutze Gorriari, hitzarmen baten bidez, Izaro I.a izeneko erreskate-itsasontzi berri bat laga zion. Itsasontziak euskal kostaldeko uretan salbamenduak egiteko behar diren baliabideak dauzka eta Gurutze Gorriak Bermeon daukan basearen zati bihurtu da.
- Irailaren 19an, Segurtasun Sailak eta Itsas Salbamenduko eta Segurtasuneko Sozietateak (SASEMAR) jarduketa-protokolo bat sinatu zuten, Bilboko Salbamendurako Eskualde Zentroaren (CRS Bilbao) eta Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroaren artean koordinatzeko, informazioa trukatzeko eta alerta mekanismoak ezartzeko.
- Egun horretan bertan, irailaren 19an, Gobernu Kontseiluak onartu zuen Segurtasun Sailak eta Euskal Herriko Unibertsitateak lankidetzaz-hitzarmen bat sinatzea, Laneko Segurtasun eta Osasuneko Unibertsitate-masterreko titulu ofiziala lortzeko graduondoko ikasketetako master amaierako lanak edota praktikak egiteko.
- Abenduaren 4an, LAEMZek eskatuta, Segurtasun Sailak eta Euskal Mendizale Federazioak lankidetzaz-hitzarmena sinatu zuten mendian autobabeserako jarduerak sustatzeko.



PLANAK

Larrialdiak kudeatzeko orduan nahitaezkoa da aurkako egoeren behar bezalako planifikazioa egitea. Hori dela eta, 2017. urtean, LAEMZek plan hauek burutu zituen:

BABES ZIBILAREN ARLOKO PLANIFIKAZIOA

PRESAK ETA URTEGIAK

Aurreko ekitaldian Ibai Eder (Azpeitia) eta Urkulu (Aretxabaleta) presetako larrialdi-planen aldeko txostena eman zen. Bi presa horiek Gipuzkoako Ur Partzuergoarenak dira.

2017an Gaubeako (Araba) Errotako presa ezartzeko prozesua amaitu zen.

ISTRIPU LARRIEN ARAUDIAREN MENPEKO ESTABLEZIMENDUAK (SEVESO)

Istripu larriei buruzko araudiari dagokionean, aurreko ekitaldian Berangoko (Bizkaia) Metallo SLU-ren kanpoko larrialdi plana onartu zen. Euskadiko Babes Zibileko Batzordeak 2017ko ekainaren 21ean egindako bilkuran plan horren aldeko txostena eman zuen.

Bilkura horretan bertan, Bilboko Portuko konplexu industrialean dagoen Zierbenako (Bizkaia) Bahia de Bizkaia Gas establezimenduaren kanpoko larrialdi planaren eguneratzeari buruzko informazioa eman zen.

UDAL LARRIALDI PLANAK

2017an Euskadiko Babes Zibileko Batzordean Bizkaiko Arrigorriagako, Leioako eta Zallako Udal larrialdi planen eta Gipuzkoako Donostiako eta Orioko Udal larrialdi planen berrikuspenari eta eguneratzeari buruz informatu zen.

Era berean, Euskadiko Administrazio osoko Larrialdiak Kudeatzeko eta Babes Zibileko arduradunei buruzko datu-baseak eguneratuta mantendu ziren eta garrantzi berezia eman zitzaion udal agintariei.

AUTOBABESA

Euskadiko gizarteak autobabesarekin lotuta egindako jarduerak ugaritu dira eta LAEMZek ere antzeman du, arlo horrekin lotutako jarduerak, hein berean, handitu dira:

AUTOBABES PLANEN HOMOLOGAZIOA

2017an, Erkidego honetan autobabesaren arloko jarduerak arautzen dituen 277/2010 Dekretuaren menpeko establezimenduetarako autobabes planak homologatzeko 105 ebazpen eman ziren.

Ekitaldi horretan zehar, prozedura administratibo hori elektronikoki tramitatu ahal izateko egin beharreko lanak ere egin ziren, aplikazioa Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoa instalatu ostean.

AUTOBABES PLANEN ERREGISTRO OROKORRA

2017an Autobabeserako Euskal Arauari lotutako 1.030 establezimendutako larrialdiak kudeatzeko datu garrantzitsuak inskribatu eta eguneratu ziren.

AUTOBABESAREN ARLOKO TEKNIKARI ESKUDUNAK

Era berean, Euskadiko administrazioan 220 teknikari akreditatu ziren eta horiek Autobabeserako Euskal Arauari lotutako establezimenduetarako autobabes planak egingo dituzte.

LURRALDEAREN ANATOMENDUA ETA INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINA

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU/INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINARI BURUZKO ESPEDIENTEEN INGURUKO TXOSTENAK

Arriskuak ekiditeko asmoz egiten diren prebentzio-lan garrantzitsuenetako bat da arrisku horiek zuzen identifikatzea eta antolatzea. Horretarako, ekimen hauek jarri ziren martxan:

- Larrialdiak Kudeatzeko Legeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Babes Zibileko Planak (LABI) ezartzen dutenaren arabera, LAEMZek lurraldearen antolamenduari buruzko hainbat txosten egin zituen, Euskadiko Lurzoruari buruzko Legeak ematen dituen eskumenak eta lurralde antolamenduari eta hirigintzari buruzko araudia kontuan hartuta.
- Halaber, ingurumeneko tramitazio prozesuen barruan, LAEMZek hainbat txosten egin zituen proiektu batzuek EAeren arrisku-balantzean izan litzaketen eraginak aztertzeke orduan: Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa, Ingurumen-baimen Integratua (IPPC). Aurreko ekitaldian horrelako 41 espediente tramitatu ziren.



SIMULAZIOAK ETA JARDUERAK

Kiroletako argotean esan ohi da entrenatzen den bezala jokatzela dela. Era berean, simulazioak funtsezkoak dira larrialdi-baliabide desberdinek garatzen duten lana hobetzeko orduan. 2017an burututako simulaziorik adierazgarrienak hurrengoan izan ziren:

Ekainaren 12an, Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatuta, Laga hondartzan egin zen urteroko erreskate eta isuri toxikoaren simulazioa. Jarduera horrek Eusko Jaurilaritza-aren eta foru-erakundearen baliabideak koordinatzeko eta mobilizatzeko prozedurak probatzeko balio izan zuen.

Ekainaren 14an, Autopista Vasco Aragoñesak (AVASA) bultzatuta, AP-68an simulazio bat egin zen, hauxe: kamioi eta auto baten arteko istripu bat zen eta horren ondorioz, hainbat zauritu harrapatuta geratu ziren eta kamioaren erregai-biltegitik erregaia Inglares errekarara isuri zen.

Urriaren 9an, 10ean eta 11n, LAEMZek, Aveq-Kimikarekin batera (Enpresa kimikoen Euskal erakundea), Euska-



diko udal batzuetan hiru jarduera kudeatu zituen larrialdi kimikoa iragartzeko sirenen sarea aktibatzen. Elkarte horren aurkezpen ofiziala egiteko ekitaldi publikoa, hain zuzen, azaroaren 23an egin zen eta horretan LAEMZek ere parte hartu zuen.

Urriaren 20an, Santa María Garoña Zentral Nuklearrerako sarbideak kontrolatzeko simulazioa egin zen. Jarduera hori Burgosko Larrialdi Nuklearreko Planean (PENBU) ezarritako segurtasun-neurrien arabera egin zen.

Sei egun geroago, urriaren 26an, Hondarribiko aireportuko instalazioetan hegazkin-istripu baten simulazioa egin zen.

Azaroaren 20an Vitoria-Gasteizko aireportuaren txanda izan zen. Hor ere hegazkin-istripu baten simulazioa egin zen. LAEMZeko bi esku-hartzeko teknikariek APA eta APN aginte-postuak hartu zituzten eta beste batek Harrematarako Pertsona gisa jardun zuen.

Eta azaroaren 30ean ere Petronorren barruko simulazio hau egin zen: erregai-tanga batek su hartu zuen eta sutea hurbileko baso-eremu batera zabaldu zen.

Abenduaren 1ean, Eusko-Trenek Alde Zaharra- Zazpi Kaleak geltokian sute bat simulatzeko jarduera bat burutu zuen, hauen lankidetzarekin: LAEMZ, Metro Bilbao, Osakidetza eta Bilboko Udaltzainak eta Suhiltzaileak

Azkenik, abenduaren 4an, Bizkaiko Foru Aldundiak istripu-simulazio hau sustatu zuen: hiru ibilgailuren arteko istripua, Uretamendi tunelaren barruan (Bizkaiko Ermuko hegoaldeko saihebidetza berria), zaurituak egon ziren eta gerora sutea ere bai.



ZABALKUN- DEA

Dibulgazio jarraituak gizartearen autobabes mailak areagotzen laguntzen du. Euskal populazioarengan ahalik eta berme handienekin iristeko, Zuzendaritza honek hurrengo erreminta komunikatiboak erabiltzen ditu:

SARE SOZIALAK

Zuzendaritzak bi Twitter-kontu aktibo ditu: @112_SOS-Deiak eta @Euskalmet.

LAEMZek YouTube plataforman ere bi kanal ditu: 112 SOS Deiak eta Euskalmet. 2017an egindako bideoak euskarazko eta gaztelaniazko bertsioan egin ziren eta hauek izan ziren:

- “112aren Europako Eguna”.
- “Autobabesa naturaguneetan”.
- “Umeentzako 112a”.
- “Segurtasuna igerilekuetan”.
- “Sute-simulazioa Bilboko HHIn”.

INTERBENTZIOAK EDABIDE ARRUNTETAN

Larrialdien munduan komunikabide tradizionalekin (prentsa, irrati, telebista) erlazio arin eta erregularra izatea funtsezkoa da. 2017an hurrengo erregistroak lortu ziren.

INTERBENTZIOAK IRRATIAN, ESKATU AHALA

LAEMZek, Euskalmeten bitartez, urte osoan zehar (asteburuetan ere bai) eguraldiaren iragarpena modu pertsonalizatuan eskaini zien, goizeko eta arratsaldeko ordutegian, EAEko irrati hauei: **Radio Euskadi, Euskadi Irratia, Gaztea, Radio Vitoria, Bizkaia Irratia, Onda Vasca, Radio Rioja Alavesa, Radio Nervión, Radio Gorbea, Cadena COPE, Cadena SER, Cadena Dial, Onda Cero Bizkaia, Onda Cero San Sebastián, Arrasate Irratia, Oñati Irratia, eta Uribe FM.**

ZABALPENERAKO LANKIDETZAK

Dibulgazio-atalaren barruan, Euskal Meteorologia Agentziak bi kolaborazio finko izan zituen 2017an:

- *Berria: Eguneroko eguraldiaren iragarpena.*
- *Onda Vasca: Interbentzioa hamabostean behin.*

PRENTSA DIGITALA

Gainera, egunero bi soinu esku-hartze egin ziren berehalako iragarpenean zentratutakoak Berria egunkariaren bertsio digitalerako.

PRENTSA-OHARRAK

LAEMZeren prentsa-oharrak emateko prozeduraren helburua da Euskadiko gizarteari, hedabideen bitartez, pertsonen segurtasunarekin eta ondasun materialekin lotura daukaten eduki meteorologikoez eta larrialdietako edukiez informatzea.

2017an LAEMZek 25 prentsa-ohar egin zituen.

Twitter eta webgunea @112_SOSDeiak



Jarraitzaile kopurua

26,2 mil

Jarritako txioak

8,9 mil

Webgunearen bisitak

91,2 mil

Twitter eta webgunea @Euskalmet



Jarraitzaile kopurua

104 mil

Jarritako txioak

4 mil

Webgunearen bisitak

11,4 M

Interbentzioak elkarrizketak



Prentsan

348

Irratian

87

Telebistan

49

PRES- TAKUNTZA- RAKO LAN- KIDETZA

Larrialdien eta babes zibilaren arloko prestakuntza da LAEMZeren tresna garrantzitsuenetako bat. Hori dela eta, Zuzendaritza honek, urtean zehar, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin batera etengabe lan egiten du larrialdi-zerbitzuen prestakuntzaren arloan. 2017an 1.893 pertsonak egin zuten ikastaroren bat. Pertsona gehienak Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemarekin lotuta zeuden.

Horrez gain, LAEMZek hainbat hitzaldi interesgarri antolatu eta haietan parte hartu zuen:

- **“Urumeako uholdeak eta muturreko meteorologia”**, mugaz haraindiko edo erakunde ugariko uholdeen kudeatzaileei zuzenduta.
- **“Isuriak, hondartzen egoera eta euri handiak kutsadurarekin”** Mundaka eta Urdai-baiko (Bizkaia) herritarrei zuzenduta.
- **112aren funtzionamenduari buruzko hitzaldiak**, Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuarekin lan-kidetzan antolatutakoa eta Hezkuntza Saileko Zentro publikoetako garbitzaileei eta Bilboko Helduen Heziketarako Ikastetxeetako ikasleei zuzenduta.

47

egindako
ikastaroak

BOZERAMAILETZA LARRIALDIETAN	2
LARRIALDIETAKO KOORDINAZIOAREN KUDEAKETA INFORMATIKOA	7
AGINTEA ETA KONTROLA BIKTIMA ANITZEKO GERTAKARIETAN	3
LARRIALDIEI AURRE EGITEKO EUSKAL SISTEMA	20
MUTURREKO METEOROLOGIA	3
TELE-LARRIALDIA ETA OSASUN-LARRIALDIA	3
112: NOLA FUNTZIONATZEN DUEN	6
INFORMAZIOA HEDABIDEI HELARAZTEA	3
GUZTIRA	47

10

EKIPAMEN- DU METEO- ROLOGIKO BERRIAK

Euskalmetek 128 estazio hidro-ozeano-meteorologiko automatiko dauzka, EAEn zehar zabaldua eta horiek hamar minutuan behin uneko informazioa ematen dute.

Sare horren eginkizun nagusia, datu meteorologiko orokorrak ezagutaraztea ez ezik, zaintza-lanak egitea ere bada, herritarrei euriarekin, ibaietako mailarekin, itsasoaren eraginarekin, elurrarekin, beroarekin edo haizearekin zerikusia daukaten muturreko fenomenoek ohartarazteko.

2017. urtean zehar, Euskalmetek, hainbat erakunderen eta organismoen lankidetzarekin, bost estazio meteorologiko berri sartu zituen bere sarean eta bat lekuz aldatu zuen:

- Albaina.
- Eskas.
- Galdakao.
- Bermeoko Mareografoa.
- Tobillas.
- Arkauti. Lekuz aldatua.



EKITALDI INSTITUZIO- NALAK

Otsailaren 10ean, 112aren Europako eguna (11/02) hurbil zegoela, Segurtasun Sailak jendaurrean aitortu zuen VOST Euskadi boluntario digitalen taldeak larrialdien arloan egiten duen lana.

Era berean, urtero bezala, martxoaren 23an Meteorologiaren Munduko Eguna ospatu zen. Hori dela eta, LAEM-Zek, Euskalmet Euskal Meteorologia Agentziaren bidez, eta UZEI Terminologia eta Lexikografia Euskal Zentroak Donostian meteorologiari buruzko datu terminologikoen bankuaren azken eguneratze-lana (Euskalterm) aurkeztu zuten. Prozesu horretan zehar meteorologiarekin loturako 1.421 definizio gehiago sartu ziren.

Ekainaren 11n, Segurtasun Saileko helikoptero baten istripuaren 30. urteurrena zela eta, Sailak Picos de European (Asturias) egindako oroimen-ekitaldian parte hartu zuen. Istripua 1987ko ekainaren 12an gertatu zen eta horretan adingabe bat bilatzen zebiltzan Euskadiko eta Asturiasko erreskate-zerbitzuetako zazpi pertsona hil ziren.



12

BOLUNTARIOAK

Boluntarioen taldeak ezinbestekoak dira Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemari, herritarrek babes zibileko lanetan daukaten parte hartzea bideratzen dutelako. Haien eskuzabaltasun osoz ematen duten laguntzari eta daukaten konpromiso maila altuari eta kualifikazio altuari esker, gure Erkidegoak segurtasun maila handiagoa dauka.

Boluntarioek, aldian-aldian, Euskadin urtean zehar egiten diren jardueretan, prebentzio-lanetan laguntzen digute.

Istripu, hondamendi edo lazeria publikoetan, funtzionalki dagokion agintaritzaren mende jarduten dute, eta, arau orokor gisa, haien parte-hartzea eskatzen den larrialdietan esku-hartzen dute, Babes Zibileko Planari eta Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Euskal Sistemaren Taktika Operatiboari jarraituta.

Babes Zibileko entitate laguntzaile gisa izena emanda dauden boluntario-talde eta -elkartek hauek dira:

- **Araba:** Amurrio, Gatzaga Buradon, Gaubea eta Laudio.
- **Bizkaia:** Alonsotegi, Balmaseda, Barakaldo, Basauri, Bermeo, Karrantza, Mungia, Muskiz, Ortuella eta Sestao.
- **Gipuzkoa:** Errenteria, Irun, Irura, Pasaia, Tolosa, Zarautz eta Hernani.

Horrez gain, gogorarazi behar da 2017an Segurtasun Sailarekin lankidetzaren hitzarmena zeukaten entitateak hauek zirela: Gurutze Gorria, DYA, Euskadiko Larrialdietarako Boluntario Digitalen Elkarte-VOST EUSKADI, Euskal Espeleologoaren Elkargoa, Euskal Mendizale Federazioa, eta Euskadiko Laguntza Txakurren Taldea.



13

PROIEKTU EUROPA- RRAK

LAEMZek, amaierako erabiltzaile gisa (end user), hainbat proiektu europarretan laguntzen du eta MAREA PROIEKTUAN bazkide gisa parte hartzen du.

Mugaz haraindiko proiektu horren helburua da itsasoaren gaineko ezagutza hobetzea eta gizartearengan daukan eragina gutxitzea.

Proiektu horren haritik, LAEMZek ekipamendu ozeano-meteorologiko batzuk erosi zituen Euskalmeteko estazioen sare nagusia osatzeko asmoz eta "Itsasoko mailaren iragarpenaren inplementazio operatiboari" buruzko azterlan bat egin zuen.



Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD